

Onartu dira 2019 urteko aurrekontuak

Aprobados los presupuestos para el año 2019





2018 urtea atzean utziz, aurrera begira jarraitzen dugu

Dejamos atrás el 2018 con la mirada puesta en el futuro

Laster 2019 urteari emango diogu ongietorria, baina ezin diogu hasiera eman 2018an lortutakoak aipatu gabe.

Benetan pozik gaude aurten egindako lanarekin; eta baita azken urteotan egindakoarekin ere. Lezoarren ongizatea hobetzeko ahaleginetan Altamiran hainbat proiektu egin ditugu; biribilgunea seguruago bilakatzeko obrak, kiroldegia auzoarekin lotzeko igogailua, auzoa hobetzeko parte-hartze prozesua... Haurren jolastokiak ere hobetu ditugu eta herri eskolako jolastokian estalkia ere eraiki dugu. Kultura eta kirolari lotuta ere hainbat hobekuntza egin dira; kultur lokal berria, Gezalako aldagelak edota helduentzako ariketa fisikoa egiteko makinak. 2019an beste proiektu batzuei ekingo diegu, batzuk berriak eta beste batzuk aurtengo proiektuei loturik doazenak; Altamirako igogailuaren oinezkoen bidea edota bidegorriaren bigarren zatia eraikitzea, besteak beste. Proiektu horiek guztiek pertsonak dituzte erdigunean eta Lezoko irisgarritasuna hobetzea eta enplegua, kultura eta kirola sustatzea dituzte helburu lezoarrei aukera berriak eskaintzeko asmoz.

Bestalde, Gabonak hementxe ditugu eta gure dendei merezi duten garrantzia eman nahiko genieke eta herritarrei kontsumo lokala egitera gonbidatu, denon ardura baita berau zaintzea, gure kaleak bizirik mantendu eta Lezo herriaren esentzia bermatzen jarraitzeko.

Pronto daremos la bienvenida al 2019, pero no sin antes remarcar lo realizado en 2018.

Estamos muy contentos con el trabajo que hemos hecho tanto este año como en los anteriores. Con el objetivo de mejorar el bienestar de las y los lezoarras hemos llevado a cabo numerosos proyectos en Altamira: mejora de la seguridad y accesibilidad en la rotonda, construcción del primer ascensor para unir el polideportivo con el barrio, proceso participativo para mejorar Altamira... También hemos mejorado los parques infantiles del municipio y cubierto el patio de la Herri Eskola. Unido a la cultura y al deporte, hemos realizado importantes mejoras: nuevo local cultural, camerinos en el auditorio Gezala o las máquinas para que las personas de edad puedan hacer deporte al aire libre. En 2019 daremos comienzo a nuevos proyectos y continuidad a otros ya puestos en marcha, entre ellos, el paso para peatones que se construirá junto al ascensor de Altamira o el segundo tramo del bidegorri. Hemos centrado todos los proyectos en las personas y en su bienestar y todos tienen como objeto mejorar la accesibilidad del municipio e impulsar el empleo, la cultura y el deporte para ofrecer nuevas alternativas a las y los lezoarras.


Por último, a las puertas de las navidades me gustaría hacer un llamamiento para que se consuma en el comercio y la hostelería local porque es responsabilidad de todos ayudar al pequeño comercio que es en definitiva quien mantiene nuestras calles vivas.

Elias Salaberria kalea eraberritzeko lanak hasi dira

Se renovará la calle para hacerla más accesible y se mejorará la iluminación y la red de saneamiento.



A PUNTO DE FINALIZAR LAS OBRAS DEL PRIMER ASCENSOR DE LEZO



Una de las prioridades del Ayuntamiento de Lezo durante estos últimos años, ha sido y sigue siendo mejorar la accesibilidad del municipio en favor del bienestar de las personas y su calidad de vida. Por ello, además de la construcción del ascensor, el Ayuntamiento ha llevado a cabo diferentes actuaciones: pasos peatonales elevados, eliminación de barreras arquitectónicas, mejora del asfaltado de calles, rellenado de hondonadas, mejora de la iluminación y antideslizante en aceras y zonas resbaladizas, entre otras.

Las obras de construcción del ascensor junto al polideportivo dieron comienzo en verano con el objeto de unir dicho espacio con el barrio de Altamira y así acercar el barrio al centro. Y se prevé que esté en funcionamiento a finales de diciembre.

A este nuevo elevador le seguirán otros, tal y como contempla el Plan de Accesibilidad Vertical realizado por el Ayuntamiento, ya que se prevé construir varios ascensores más por fases en los próximos años para seguir mejorando la accesibilidad de Lezo. Y además, en 2019 se construirá el camino peatonal junto al ascensor para dar por concluido el proyecto en su totalidad.

HELBURU NAGUSIA: IRISGARRITASUNA HOBETZEA

Lezoko irisgarritasuna hobetzeko eta Altamira auzoa herrigunera gerturatzeko helburuarekin Udala Lezoko lehen igogailua eraikitzen ari da. Lanek 590.458,53€ko kostua izango dute eta abendu bukaerarako prest egongo dela aurreikusten da.

Etorkizunera begira, Irisgarritasun Plan Bertikalak, faseka, igogailu gehiago eraikitzea aurreikusten du, beraz, hau datozen urteetan eraikiko diren igogailuen artean lehen besterik ez da. Halaber, 2019an igogailuaren alboan oinezkoentzako bidea ere eraikiko da.



ITURRIN INDUSTRIGUNA BERRITUKO DA

Aurrera eramango diren lanek, zein datozen urteetan egingo direnek, helburu izango dute espazioa erakargarriagoa eta egokiagoa egitea bertan txertatu nahi diren enpresentzat, horrela enpresa berriak erakarri ahal izango dira, jarduera ekonomikoa sustatzeaz gain, lanpostu berriak sortzeko. Horretarako, hitzarmena sinatu da SPRIrekin.

CURSOS SOBRE IGUALDAD PARA CLUBS DEPORTIVOS

Con el objetivo de promover la igualdad entre hombres y mujeres, también en el ámbito deportivo, el Ayuntamiento llevó a cabo varias sesiones de formación dirigidas al personal de los clubes de deporte de Lezo y a personas educadoras del deporte escolar.

Los cursos fueron impartidos por Ainhoa Azurmendi, asesora deportiva y experta en temas de igualdad, y Urtxintxa Aisialdia Eskola para dotar a las personas participantes de las herramientas e instrucciones necesarias para fomentar la igualdad en el día a día: conceptos básicos de igualdad, lenguaje a emplear o las estrategias a aplicar para fomentar la igualdad y la participación femenina en el deporte.




ESKOLAKO AGENDA 21 FOROA UDALETXEAN

Joan den ikasturtean ikasleek landutako eta udalari aurkeztutako zarata gutxitzeko neurriek erantzuna izan zuten azken Eskolako Agenda 21 foroan.

Udal ordezkariak hurrek egindako eskaerei erantzun zieten banan-banan eta ikasleen ordezkariak adi entzun zituen udaletxeko bilkura

aretoan udal ordezkariak emandako azalpenak. Halaber, zarataren udal ordenantza idazteko eta herritarrak gaiaren inguruan sentsibilizatzeko komunikazio-ekintzak gauzatzeko konpromisoa ere hartu zuen Udalak. Ikasturte honetan, KLIMA ALDAKETA lantzen hasi dira ikastetxeetan eta egindako lana eta emaitzak Udalari aurkeztu asmoz, 2019ko maiatza aldera berriz ere udaletxean elkartzea aurreikusten dute ikasleek.

REACONDICIONAMIENTO DE LA PLAZA SITUADA EN LA PARTE SUPERIOR DE LOS GARAJES DE ALTAMIRA



Los garajes situados en Tomas Garbizu 22-23 sufren problemas de humedad. Los citados garajes son de titularidad privada pero la plaza situada en la parte superior es de uso público. Por ello, a fin de dar solución a los problemas de humedad y reacondicionar la plaza el Ayuntamiento ha firmado un convenio con los propietarios de los garajes. De este modo, las obras se sufragarán entre las dos partes, el Ayuntamiento asumirá el coste de 255.000 euros correspondientes a la plaza y las y los propietarios destinarán 150.000 euros a la impermeabilización y acondicionamiento de los garajes. El proceso de adjudicación de las obras comenzará en breve.

KIMAKETA LANEI EKIN ZAIE

Urtero negua heldu aurretik kimaketa lanak egiten dira. Azaroaren 12an ekin zitzaien lanei guneka antolatuz eta platanondo guneei lehenasuna emanez. Kimaketa programan sartutako zuhaitzez gain, bizilagunek alde-zuhaitzak egindako eskaerei ere kasu egin zaie eta kimaketa lanetatik ateratako adaxkak txikitu eta auzokonposta guneei eta Baratza Parkean erabiliko dira.

GRAN IMPLICACIÓN DE LA CIUDADANÍA AL HILO DEL DÍA CONTRA LA VIOLENCIA SOBRE LAS MUJERES

Este año, una vez más, el Ayuntamiento ha organizado un amplio programa por el Día Contra la Violencia sobre las Mujeres junto a diversos agentes y asociaciones de Lezo.

Por primera vez, se ha llevado a cabo una campaña especial para visibilizar la violencia machista y reivindicar una sociedad sin violencia de género colocando



zapatos rojos en los escaparates de las tiendas y pañuelos rojos en los balcones del municipio con los nombres y apellidos de las mujeres asesinadas durante estos últimos años. Los pañuelos se repartieron en el ambulatorio y se agotaron en un día, por lo que la implicación de la ciudadanía ha sido total.

EUSKARALDIA URTEKO 365 EGUNETAN

Horixe da aurrean dugun erronka berria, Euskaraldia urteko egun guztietara zabaltzea.



Hizkuntza ohituretan eragitea helburu izan duen egitasmo honek babes izugarria izan du Lezon eta Udalak bere aldetik, ekimenaren antolakuntza babestu eta sustatu ditu eta Euskararen

Nazioarteko Eguna ospatzeko egitarau berezia antolatu du. Halaber, euskararen normalizazioaren alde urratsak egiten jarraitzeko planak onartu berritu ditu, euskarak eguneroko bizitza aberastu dezan eta eguneroko bizitzak euskara bete dezan.

MEJORANDO LA COMUNICACIÓN SOBRE CASOS DE VIOLENCIA MACHISTA

Los técnicos y representantes del Ayuntamiento recibieron formación sobre cómo comunicar los casos de violencia machista, y es que el Ayuntamiento considera imprescindible seguir dando pasos para mejorar la atención a las mujeres que sufren violencia. Por ello, en 2017 se aprobaron varios protocolos de actuación a fin de mejorar la respuesta y definir los procedimientos a seguir en estos casos.



BARATZE PARKEKO ZUBITXOA BIOINGENIARITZA TEKNIKEN BIDEZ BERRITUKO DA

Lehenik eta behin errekaoko ertzak egonkortuko dira higadura arazoei konponbidea emateko eta ondoren, bioingeniaritza tekniken bidez ere zubitxoa konponduko da.

Bioingeniaritzak landare biziak eta landare zatiak obra material bezala erabiltzen ditu eta lehenengo aldiz ingeniaritza mota hau erabiliko da Lezon obra bat egiteko. Halaber, aipatu obra ezagutzera emateko, abenduaren 10ean, Lezoko Udalak antolatuta, hitzaldia eskaini zen kultura aretoan.

LEZO SE VISTE DE NAVIDAD

Una vez más el Ayuntamiento ha decorado árboles y diversos elementos del municipio con luces para sumergir Lezo en ambiente Navideño. También se ha colocado el árbol de Navidad en Gurutze Santuaren plaza. Con ello, se persigue, un años más, un doble objetivo: ambientar las calles de Lezo por un lado y promover y apoyar el pequeño comercio y la hostelería por otro.

AURREKONTUAK 2019 PRESUPUESTOS

Lezok 8.717.000€ko aurrekontua izango du datorren urtean, iaz baino 317.000€ gehiago, eta horietatik 691.000€ bideratuko dira inbertsioetara.

Helburu nagusiak lezoarren beharrei erantzutea eta pertsonen ongizatea bermatzea izango dira eta inbertsio nagusiek, beste behin, udalerriko irisgarritasuna hobetzea izango dute jomuga eta enplegua, kultura eta kirola sustatzea ere lehenetsutako gaiak izaten jarraituko dute 2019an.

Baliabideak eraginkortasunez kudeatuz

Lezok aurrekontu egonkor eta orekatuak ditu diru-sarrera eta gastuei dagokienean eta horri esker, Udalaren egoera ekonomikoa ona da, maileguak eskatu gabe inbertsioak egiteko gaitasuna duelako Udalak.

Udal baliabideak eta inbertsioak eraginkortasunez eta zorroztasunez kudeatzea izango da, beste behin, Udalaren egitekoa, orain arte bezala herritarrei aukera berriak eskaintzeko eta beren beharrei erantzuteko helburuarekin.

Buena situación económica y financiera

La situación económica del Ayuntamiento de Lezo es buena ya que los ingresos corrientes (dinero recaudado por el Ayuntamiento) superan los gastos corrientes y ello permite destinar la diferencia a inversiones sin pedir créditos. Por tanto, el Ayuntamiento tiene unas cuentas saneadas.

Y todo ello, además, sin dañar el bolsillo de la ciudadanía, ya que el principal objetivo durante estos últimos años ha sido:

- No subir los impuestos y las tasas o en caso de tener que hacerlo minimizar su subida para disminuir la presión fiscal que padecen las y los lezoarras.
- Invertir y gestionar de forma eficaz, eficiente y sostenible los recursos disponibles en respuesta a las necesidades y peticiones de las y los lezoarras y a favor de su bienestar.

SARRERAK INGRESOS		GASTUAK GASTOS	
Tasak eta zergak <i>Tasas e impuestos</i>	3.990.000 €	Pertsonal gastuak <i>Gastos de personal</i>	3.030.000 €
Transferentzia arruntak <i>Transferencias corrientes</i>	4.470.000 €	Gastu arruntak <i>Gastos corrientes</i>	2.838.000 €
Ondare sarrerak <i>Ingresos patrimoniales</i>	10.000 €	Finantza gastuak <i>Gastos financieros.</i>	16.000 €
Kapital transferentziak <i>Transferencias de capital</i>	235.000 €	Transferentzia arruntak <i>Transferencias corrientes.</i>	1.450.000 €
Finantza aktiboak <i>Activos financieros</i>	12.000 €	Kreditu globala <i>Crédito global.</i>	210.000 €
		Finantza aktiboak eta pasiboak <i>Activos y pasivos financieros.</i>	482.000 €
		INBERTSIOAK/INVERSIONES	691.000 €

Aurrekontua guztira Presupuesto total 8.717.000 €

ONGIZATE GEHIAGO, ENPLEGU GEHIAGO, KULTURA GEHIAGO ETA KIROL GEHIAGO

Pertsonen ongizateari lotuta, datorren urteko aurrekontu proiektuak, beste behin, herritarren eskaera eta beharrei erantzuna emateko proiektuak bildu ditu.

Irisgarritasuna hobetzen jarraitzeko, kiroldegi alboan eraiki den igogailuaren proiektuari lotuta oinezkoen bidea eraikiko da; enplegua sustatzeko ekimenak gauzatuko dira Garapen Agentziaren bitartez, kultura eta kultur jarduerak sustatuko dira, herriari bizia eta nortasuna ematen dietelako eta herritarren artean ere ohitura osasungarriak eta kirol jarduera sustatuko dira, bereziki, adinekoen zahartze aktiboa eta osasuntsua bermatzeko.

Promover la actividad económica, garantizar el bienestar de las personas, mejorar la accesibilidad e impulsar la actividad cultural y deportiva, seguirán siendo prioritarios en 2019

DATORREN URTEKO INBERTSIO NAGUSIAK *PRINCIPALES INVERSIONES EN 2019*

El proyecto de presupuestos de 2019 recoge, una vez más, proyectos en respuesta a las principales necesidades y peticiones de la ciudadanía en aras de mejorar su bienestar y su calidad de vida.



NUEVO CAMINO PEATONAL JUNTO AL ASCENSOR DE ALTAMIRA

Herriko irisgarritasuna hobetzeko helburuarekin, hurrengo urteko hirigintza proiektu nagusiena zigzagean, Villa bat eta igogailuaren artean eraikiko den oinezko bidea izango da.

Mejorar la accesibilidad del municipio seguirá siendo prioritario el próximo año y por tanto el principal proyecto de urbanismo que se llevará a cabo en 2019 será la construcción del camino peatonal en zigzag entre Villa Bat y la pasarela del primer ascensor. De esta manera se logrará mejorar la accesibilidad de la zona acercando aún más el barrio de Altamira al centro urbano y se dará por concluido el proyecto en su totalidad.

MAYOR PRESUPUESTO PARA FIESTAS Y ACTIVIDADES CULTURALES

Kultura Departamentuak jaietarako eta kultur jardueretarako aurrekontu handiagoa izango du.

Con el objeto de seguir impulsando la actividad cultural de Lezo, se destinará un presupuesto mayor a actividades culturales y fiestas.



NUEVAS ALTERNATIVAS DE OCIO Y DEPORTE



Adineko pertsonen ongizatea bermatzeko zahartze aktiboari lotutako ekimenak mantentzeaz gain:

- Ur-jolas berriak Altzaten *Instalación de juegos de agua en Altzate*
- Skate park-aren hobetzea *Mejora del Skate park*
- Kirol ekipamenduak berritzea (fitness makinak) *Renovación del equipamiento deportivo (máquinas fitness)*

SE MANTIENEN: PLAN DE EMPLEO, SERVICIOS SOCIALES Y TRABAJOS DE MANTENIMIENTO

Gizarte programa, zerbitzu, prestazio eta laguntzei bideratutako partida guztiak mantenduko dira herritarren gizarte beharrei erantzuna emateko. Urtero bezala, enplegu planak ere aurrekontua izango du, Garapen Agentziaren bitartez, langabetuei enplegu aukera berriak eskaintzeko. Eta lezoarrei herri garbi, txukun eta atsegina eskaintzen jarraitzeko ere mantenu lanak gauzatuko dira.

Se mantienen todas las partidas destinadas a programas, servicios, prestaciones y ayudas sociales para dar respuesta a las necesidades de primera orden de la ciudadanía. El Plan de Empleo contará también con su correspondiente partida presupuestaria para que la Agencia de Desarrollo Comarcal lleve a cabo iniciativas que ayuden a las personas desempleadas en su inserción laboral. Y por último, a fin de seguir ofreciendo un municipio limpio y agradable se mantendrán todas las labores de mantenimiento: jardinería, limpieza viaria y de ríos, saneamiento, iluminación, entre otros.



Duela 4 urte proiektu eta asmo zehatzekin aurkeztu ginen eta horiek guztiak gauzatzean jarri ditugu gure indarrak: 5. edukiontzi sistema, irisgarritasuna, kultura eta kirola, garbitasuna, bidegorria, Herri Eskolako estaldura, gazteen emantzipazioa, presio fiskala baretzea, tokiko jarduera ekonomikoa sustatzeko industriagunea egokitzea eta enplegu plana sustatzea...

zerrenda luzea da eta oraindik ere, 2019rako eta datozen urteetarako proiektu garrantzitsuak ditugu, hala nola, oinezkoen bidea. Ekindako bideari jarraipena ematea da gure helburua Lezo hobetzen jarraitzeko eta proiektu berriekin herritarren egungo zein etorkizuneko beharrei erantzuteko.

Estamos llevando a cabo todos los proyectos con los que nos presentamos hace 4 años. Las iniciativas recogidas en los presupuestos de 2019 nos permitirán culminar nuestro programa y dar inicio a nuevos proyectos que den respuesta a las necesidades actuales y futuras de Lezo y la ciudadanía lezoarra. Tenemos grandes ideas y proyectos entre manos y queremos dar continuidad al camino emprendido durante estos años porque Lezo debe seguir avanzando y mejorando.



8.717.000€ko aurrekontua izango dugu 2019an, azken 2 legegintzaldietako handiena. 2013an adibidez, 7.150.000€koa izan genuen. Aurrekontuak lan-tresna garrantzitsua dira Udalaren kudeaketarako, gobernu taldearen bidea erakusteko balio dute. Aurrekontu hauekin enpleguaren eta ongizatearen sustapenak lehenesten dituztela esan du gobernu taldeak, herritarren eskaerei eta beharrei erantzuten diela. Aurrekontuak aztertuz ordea, EAJ-PSE gobernu taldeak eremu horietan jeitsierak egin dituztela ikusenez: berdintasun partidak %46ko jeitsiera izango du; adin txikien programak %17,4koa; bazterkeriari aurre egiteko %12,5 gutxiago izango dugu; enplegu planean %25 murrizketa; herritarrek auzoak hobetzeko egingo lituzketen inbertsioak erabakitzeke erabilgarri zuten 100.000€ko partida osorik kendu dute, 2019an 0€ izango dugu.

Murrizketa hauen arrazoiak azaltzeko eskatu genien Osoko Bilkuran, baina ez zuten jakin izan zergaitiak esaten, mutu geratu ziren.

Adierazpenetan asmo politikak entzun dizkiegu, baina aurrekontuan beste kontu batzuk ikusten dira.

Bukatzeke urte berri zoriontsua opa nahi dizuegu bihotz-bihotzez.



El PSE-EE aprovecha este espacio para realizar una defensa del pequeño comercio de Lezo. Esa "tienda" de toda la vida regentada por vecinos del pueblo, que se preocupan por el lugar donde viven, que conoce a sus clientes, que se preocupa por lo que sucede a su alrededor. Un comercio que humaniza al pueblo, ofrece un trato más cercano y dinamiza la económica local, permitiendo a muchos vecinos ganarse la vida dignamente a la vez que proporcionan un necesario servicio a la comunidad. Mientras Lezo cuente con un tejido comercial digno las calles serán más seguras, la vida más agradable y por que no decirlo y más aún en estas fechas navideñas, el ambiente será más feliz. Siempre encontraremos productos de gran calidad y de proximidad en la tienda de comestibles de Gurutze Santuaren Plaza, pescado de la lonja en la pescadería de Jaizkibel Hiribidea o tomarnos un rico café en Lopene Plaza, después de abastecernos de productos de una granja de la provincia en Donibane Kalea. La situación con los cambios en los hábitos de consumo, los nuevos formatos comerciales y el e-commerce es difícil pero es responsabilidad de todos, comerciantes, vecinos e instituciones hacer que nuestro comercio siga siendo atractivo. Zorionak eta Urte Berri On!, eta Lezon erosi!



MAIALEN ALBERDI

COORDINADORA ESKOLA KIROLA LEZO

Lezoko Eskola Kiroleko koordinatzaile den Maialen Alberdik berdintasunaren inguruan hitz egin digu; haurrek gaztetatik jasotzen dituzten mezuak eta sustatu beharreko heziketaz aritu da.

La coordinadora del Deporte Escolar de Lezo Maialen Alberdi nos ha hablado sobre la igualdad; sobre los mensajes que perciben las personas jóvenes y sobre la educación que se debe impulsar.

Zeintzuk dira Eskola Kirolaren helburuak?

Gure ereduak hiru ezaugarri ditu; parte-hartze irekia eta aukera berdintasuna sustatzen ditu, kirol aniztasuna eskaintzen du eta eskolako helburuekin uztartzen da, eskola bidelagun duelarik.

Gurea ekintza hezitzailea izan dadin saiatzen gara beraz. Haurrak ez datoz kirola ikastera soilik, baizik eta kirolaren bitartez hezten saiatzen gara. Badago halako uste orokor bat non kirolak berezko ezaugarri hezitzaileak dituela pentsatzen dugun. Eta hori ez da horrela. Kirola tresna paregabea izan daiteke heziketarako, balio desberdin ugari lantzeko, noski, baina horretarako modu egokian bideratu behar da. Hori da gure erronka!

Lezo Herri Eskolako eskola kirolaren kasuan, helburu nagusia honakoa da; zoriotsuago bizitzeko, norbere ezagutza helburu, gure mugak eta gaitasunak ikusten, onartzen, gainditzeko, azken finean lantzen saiatzen gara. Lehia gehiegi indartu gabe, guztion parte hartzea eta lagunen arteko giro alai bilatuz, jarduera fisikoarekiko eta kirolarekiko zaletasuna bultzatuz, bizimodu osasuntsuagorantz abiatzen gara.

Taldean jarduteak zer onura ekartzen die haurrei?

Taldean jarduten dugunean elkar lanean jarduten gara eta horrek zenbait taldean jardutean taldekide bihurtzen zara. Horrek halako ardurak dakartza. Taldearekiko konpromisoa, taldekideekiko errespetua... Bestetik taldearen babesa, zaintza, laguntza... Kontutan izan behar dugu, gure ekintzan, egoera eta praktika desberdinak jorratzen ditugula, hala nola, kooperazioa, aurkaritza, interakzioa...

Baditugu baita ere aste-bukaeretakako jardunaldi berezi batzuk non partidak izan beharrean topaketak diren kirol desberdin bat praktikatzeko eta elkarrekin jokatzeko. Horrelako jardunaldietan ez dago genero sailkapenik. Hezitzaile bezala topaketa hauetan gaitasun desberdinak dituzten pertsonak elkarren artean jokatzeko eta partaidetzak poztasuna ematen digu. Desberdinak diren aldetik, denak elkarrekin eta errespetuzko giro horretan elkarren aritze horrek sustatu nahi dugu. Lezon begiraleak elkarlanean aritzen dira eta saioaren arabera ez dute taldeka entrenatzen, saioak bateratzen dituzte eta elkarrekin aritzen dira.

Kirolak laguntzen al du haurren segurtasuna eta kontzientzia garatzen?

Jarduera fisikoak zure burua ezagutzen laguntzen dizu. Dituzun gabezia eta gaitasun batzuk agerian uzten ditu, eta horiek landu eta hobetzeko aukera eskaintzen dizu praktikak berak. Hobetzen zoazen heinean, ziurtasuna irabazten zoaz eta horrek zure buruarekiko konfiantza handitzea dakar ezinbestean. Batzuetan, gabeziak azalaztean, haurrek ez dute jolas horretan parte hartu nahi. Gero ikusten doaz, praktikarekin hobetzen doazela eta aurrera pausu horietaz kontziente direnean, motibazioak gora egiten du. Bide horretan lagundu behar diegu hezitzaileok.

Nesken parte-hartzeak gora egin al du aurten? Nolako izan da nesken parte-hartzearen bilakaera urtetik urtera? Zergatik uste duzu eman dela gorakada?

Aurten gorakada eman da bai! Aspaldi, maila bakoitzeko neska talde bat genuen gutxienez,

maila batzuetan bi talde ere. Baina ohikoena maila bakoitzeko 3 talde izatea da, 1 neskena eta 2 mutilena. Aurreko 3 urteetan aldiz, beherakada eman zen nesketan.

Zergatik eman den gorakada hau? Beraien artean animatu direla esan behar dut. Orokorrean, eta hau bai da urtero jasotzen dugun datu bat, mutilen %70 inguruk eskola kirolean parte hartzen dute. Nesketan aldiz, ohituraz %40a inguruk egin izan dute eskola kirola. Aurreko 3 urteetan, kopuru hori %20-25era jaitsi zen. Aurten berriz, %43ra igo gara. Badaude ere eskola kirolek kanpo jarduera fisikoa burutzen duten haurrak. Nesken parte hartzeaz ari garenez, azken urteetan, neska batzuk beste jarduera fisiko egiteko aukeraketan, gimnasia erritmikoa, zumba eta horrelako ekintzak aukeratu dituzte.

Uste al duzu kirol batzuk badutela loturarik sexu identitate zehatz batekin?

Tamalez, uste dut 2018. urtean horrela jarraitzen dugula. Badaude ekintza batzuk generoarekin lotzen ditugunak eta hori ez litzake horrela izan behar. Bakoitzak egin dezala gustuko duena. Gaur egun kirol desberdinak egiten dituzten emakumeen eredu gehiago ditugu eta horrek laguntzen digu ulertzen kirola ez lukeela generoari lotuta egon behar baizik eta kirola pertsona guztiak praktikatu dezaketen ekintza dela.

Ni adibidez, haurra nintzenean futbolekin aritzen nintzen gehien bat eta ez dizut gezurra esaten mutil asko baino trebeagoa nintzela esaten badizut. Hori bai, "marimutil" etiketa jarri zidaten.

Nire ustez, berdintasuna, neska edo mutila izanda, bakoitzak gustuko duenean aritzeko askatasunean datza inongo etiketa jasan gabe. Badaude dantza edo erritmikoa gustuko duten mutilak eta badaude futbola eta errugbia gustuko duten neskak. Anitzak gara eta aniztasun hori errespetuz onartzen ikasten jarraitu behar dugu.

Geroz eta emakumezko begirale gehiago dabil Eskola Kirolean jardunean, uste al duzu positiboa izan daitekeela etorkizunari begira emakumezko haurren partaidetza sustatzeko?

Positiboa iruditzen zait begiralea eredu bat delako eta honek ulertarazten du emakumeok ere gure lekua dugula kirolean.

Guraso guztiak ulertzen al dituzte eskola kirolaren baloreak?

Gure helburua da haur guztiak parte-hartzea topaketan eta irabazi eta galtzeari garrantzia

eman beharrean, elkarrekin jarduteari eta ondo pasatzeari eta gutxinaka ematen dituzten pausoei garrantzia ematea. Gurasoek ematen dituzten mezuak oso garrantzitsuak dira haurrarentzako eta horregatik uste dugu oso garrantzitsua dela gurasoak ere balio hauen lanketan sartzea.

Medioek ere ez dute laguntzen emakumezko eta gizonezkoen berdintasuna sustatzerakoan, nabaritzen al duzu arazo hau eskola kirolean parte-hartzen duten haurren artean?

Hedabideetan egon den azken berrietako bat urrezko baloiaren sari banaketan eman da. Lehenengo aldia izan da emakumeen artean sari hau banatzen dela. Berdintasunerako bidean aurrera pausu bezala ulertu dezakeguna. Baina gero, animatzaileak honakoa galdetu zion Ada Hegerberg irabazleari: "Ba al dakizu twerking-a egiten?" Errugbi partida batean ere, emakume batek odolez bukatu zuen sudurretik eta titularra zen "Le destrozan su bonita cara pero ello continuó jugado". Uste dut emakumez kirolean gutxi hitz egiten dela, eta hitz egiten den askotan objektu bezala tratatzen gaituztela.

Dena den hedabideetan kirolaz hitz egiten denean ehuneko handi baten futbol maskulinoaz aritzen dira, eta beste milaka kirolez ez da hitz egiten edo esaldi bakarra esaten dute. Berdin zaigu Patri Espinar pilotari euskaldunak One wall-eko munduko txapelketa irabazi duen aurten. Horrek ez du oihartzunik. Futbolari dagokionez edozein txikikeriarekin ordu erdi egon daitezke notizia ematen.

Nabaritzen dut haurren kirol eredu telebistakoa dela eta mesede gutxi egiten diola haur eta helduen kirola ulertzeko moduari. Hala ere, egia da gutxinaka emakumea lekua hartzen dabilela hedabideetan azaltzen den kirolean eta horrek laguntzen du neska kirolean lekua dutela erakusten.

Nola animatuko zenituzke neska gazteak Eskola Kirolan parte-hartzera?

Lehenik eta behin animatuko nituzke Ane Salaberria eta Ane Jaunarenaren elkarrizketa irakurtzera, ikus dezaten bi nesken ahotik ze gustura dauden Eskola Kirolean parte-hartzen. Bigarrenik, gure ekintzan kirol modalitate desberdin asko probatzeko aukera izango dutelako eta agian atsegin izango duten bat aurkituko dutelako. Kirolak laguntzen dizulako zure gorputza beste maila batean ezagutzen, erabiltzen eta indartzen, eta honek askatasuna ematen dizu.

ESKOLA KIROLEKO HAUREN IRITZIA

Seigarren mailako Ane Jaunarena (argazkian eskuman) eta Ane Salaberriak (argazkian ezkerrian) beraien esperientziaz hitz egin digute. Biek Eskola Kiroleko neska taldean jokatu dute beti eta esperientziatik hitz egin digute Eskola Kirolean izan duten partaidetzaz eta berdintasun ezak ekartzen dituen desabantailen inguruan.

Ane Jaunarena y Ane Salaberria, ambas de sexto curso, nos hablan sobre su experiencia en el Deporte Escolar, la participación y la desigualdad en el mundo del deporte.



Egiten dituzuen ekintza guztien artean, zein da zuen gogokoena?

Ane Jaunarena: Futbola. Oinekin jokatzeko asko gustatzen zaidalako.

Ane Salaberria: Eskubaloia. Eskuarekin trebeagoa naizelako.

Desberdintasunik ikusten al duzu emakumezkoen eta gizonezkoen artean kirolean aritzerakoan?

A.S.: Futboleko adibidez hobeto tratatzen zaie mutilei neskei baino. Diru kontuetan, neskek mutilek baino gutxiago irabazten dute. Eta neskei ordu okerrenak tokatzen zaizkie entrenatzeko eta partidetarako.

Eta zuen adinekoen artean?

A.J.: Jolas orduetan, eskolan, taldeak antolatzerakoan, mutilek erabakitzen dute. Orokorrean trebeenak elkartu eta besteak beste taldera bidaltzen dituzte.

A.S.: Ez zaigu justua iruditzen eta ez dugu gustura parte hartzen. Ez digute baloia pasatzen eta ez digute hobetzeko aukerarik ematen.

Eta kexatzen al zarete?

A.J.: Bai, baina ez digute kasurik egiten.

Jardueretan parte-hartzerakoan taldearen parte sentitzen al zara?

A.S.: Oso gustura, alai eta pozik.

A.J.: Bai. Oso gustura jolasten dugu, denak parte hartzen eta animatzen.

Talde mistoa izango balitz zuena, berdin ibiliko zinaketela uste duzue?

A.J.: Mutilak oso berekoiak izango lirateke eta guk ez genuke parte hartuko. Ez digute pasatzen. Eta horrela ez ginateteke gustura egongo.

A.S.: Guztiz ados nago Anek esan duenarekin.

Uste al duzu kirol zehatz batzuk zure partaidetza errazten edo zailtzen dutela?

A.J.: Ez. Denetan gustura nago nire taldearekin.

A.S.: Ez. Denek kirol guztietan parte hartzen dugu.

Zer ekarpen egiten dizu eskola kirolak?

A.J.: Kirol desberdinetan jolasteko aukera. Kirol bakarra ez dagoela erakusten digute. Gauza asko daude!

A.S.: Konturatzen zara kirol desberdinetan zuk pentsatzen zenuena baino hobea edo okerragoa zarela. Zure burua ezagutzen duzu kirol kontuetan.

Zergatik uste duzu neska gehiago animatu beharko liratekela eskola kirolan parte-hartzeraz?

A.J.: Kirola egitea osasuntsua delako, oso ondo pasatzen duzulako eta mutilak ez direlako kirola egin behar duten bakarrak.

A.S.: Horrela, mutilek eta helduek, neskek ballet-a, gimnasia erritmikoa, dantza... bakarrik egiten ez dutela konturatzen. Ahal dugu erakutsi emakumeak eta neskek kirol gaitasun gehiago ditugula!



EMAKUMEZKO KIROLARIEI OMENALDIA

Abenduak 15an, arratsaldeko 16:30etan Bekoerrotako Kiroldegian ospatu zen Super Amara Bera Bera eta Liberbank Gijón emakumezkoen partida eta gero, emakumezko kirolariei omenaldia egin eta oroigarriak banatu zitzaizkien Herri Eskolako estalitako patioan.

Gabonetako egitaraua

ABENDUAK 19

18:00 GABONETAKO KONTZERTUA. Tomas Garbizu Musika Eskolako Soka Taldeak eskainita, Gezala Auditoriumean.

ABENDUAK 20

18:00 GABONETAKO KONTZERTUA. Tomas Garbizu Musika Eskolako talde instrumentalekin, Gezala Auditoriumean.

ABENDUAK 21

19:30 GABONETAKO KONTZERTUA. Aiton-Borda eta Sutargi Abesbatzen eskutik, Gezala auditoriumean.

20:00 ELKARRETARATZEA. Presoen aldeko elkarretaratzea Gurutze Santuaren plazan.

ABENDUAK 22

16:30 GABONETAKO HAUREN ZINE-ZIKLOA. "Olentzero eta Amilaren sekretua", Gezala auditoriumean.

ABENDUAK 24

12:00 HATOR HATOR. Euskal Herria plazatik abiatuta.

16:30 GABONETAKO KALEJIRA. Aiton Borda abesbatza eta TGLUMEKko Triki-tixa taldearekin, Aiton Bordatik abiatuta.

18:30 OLENTZERO. Kalejira San Pedro auzotik abiatuta (preso eta ineslarien aldekoa).

ABENDUAK 25

11:30 BADATOR OLENTZERO. OPARI BANAKETA. 11:30 Altamiran 12:00 Gurutze Santuaren plazan.

ABENDUAK 27

16:30 SKATE. Skate saio irekiak Skate parkean.

ABENDUAK 27-28 (10:00-12:00 | 16:00-18:00)

EUSKAL HERRIKO SASKIBALO! TXAPELKETA. JUNIOR. Bekoerrotako kiroldegian.

ABENDUAK 28

20:00 ELKARRETARATZEA. Presoen alde, Gurutze Santuaren plazan.

ABENDUAK 30

10:30 URPEKARITZA BATAIOAK. Altzate Igerilekuan. Abonatuak: doan / Ez abonatuak: sarrera murriztua. 11:00 MUXIKO TAILERRA eta FESTA. Gurutze Santuaren plazan.

ABENDUAK 31

11:00 SAN SILBESTRE HAUR KROSA. Gurutze Santuaren plazan.

15:00 KOPLA ZAHARRAK. Urte amaierako koplak zaharrak, baserriz baserri (preso eta ineslarien aldekoa).

18:30 URTE ZAHARREKO KOPLAK. Musika Eskolatik abiatuta.

URTARRILAK 2-3-4

09:30 ESKUBALOI KANPUSA. LH3-LH6 ikasleentzat Bekoerrotako kiroldegian.

URTARRILAK 3

16:30 SKATE. Skate saio irekiak Skate parkean.

URTARRILAK 5

12:00 PAILAZOAK. Pirritx, Porrotx. Marimototx. Bekoerrotako kiroldegian. Sarrerak 8 euro.

19:00 ERREGE KABALGATA. Lopenetik abiatuta.

Abenduak 24 arte Kultura aretoan GABONETAKO LIBURU ETA DISKA AZOKA

Gabon ZORIONTSUAK
eta *Urte Berri* ON

Felices fiestas y próspero 2019



Lezoko Unibertsitateko Udala



@LezokoUdala



@LezoUdala

DESKARGATU LEZO ESKURA JARRIKO
DIZUN APP-A

DESCARGA LA APP PARA CONOCER
TODA LA PROGRAMACIÓN

